

Zaila da Jose Ignacio Munillaren agendan tarte bat aurkitzea. Zurrumbilo bat dira Donostiako gotzain berriaren egunak. Posta elektronikoz erantzun ditu Berriaren galderak. Telefonoz osatu ditu elkarrizketaren hainbat pasarte. Zurrumbiloan.

**Ezohiko egoeran hasi duzu gotzaintza. Nabarmena izan da erretore gehienek kritika eta hainbat fededunek ere kezka azaldu dute. Nola ulertu aurkakotasun hain agerikoa?**

Badakit egoera zaila dela. 131 apaiz horien idatziak, adierazten du, Uriarteren suzesioa interes eta tentsio handiz ari zela bizitzen... Beste era bateko norbait espero zuten, hori garbi dago. Arazoa ukatu gabe, gauza bat esan nahi nuke: dokumentua sinatu dutenetatik dezente, nirekin egon dira, esateko, ez zekitela komunikabideetan azalduko zenik, horrek min eman ziela.

**Astebete bete duzu gotzain lanetan. Zer inpresio?**

Oso aste bizia izan da, hainbeste gauza astebetean! Datorren asterako deia luzatu diet artzipresteei, haiekin egoteko. Eta Donostiara iritsi arte isilik egon ondoren, komunikabideetan asko egon naiz, gure gizarte mediatiko honekin komunikatzeko garaia zen... Baina apezpiku batek ezin beti erritmo horri segitu, eta aste hau pasata nahi nuke Elizbarrutiko gazetan zentratzen hasi.

**Haitiri buruzko adierazpenen harira, hamaika kritika egin zaizkizu...**

Disgustu handia hartu nuen albiste agentzia batean goiburu hau ikusi nuenean: «Haitikoa baino gaitz handiagoak badirela dio Munillak». SER irrati kateko mikrofonetan nik ahalegin handia egin nuen denen elkartasuna sustatzeko; besteak beste, Elizbarrutiko Caritasetik 100.000 euro bidali genituela jakinaraziz, eta, kaltetuak gogoan, Sansebastian jai xume batzuk eskatuz. Gero, eskaera egin zidaten, goiz hartan bertan Radio Maria irrati katean, albisteari buruz eman nuen azalpena eskaintzeko; entzule batek galdetu zidan, nola uler zitekeen Jainkoaren existentzia bera horrelako hondamendien aurrean... Azalpen teologiko bat eman nuen, gaitz fisikoaz eta moralaz Santo Tomas Akinokoak egiten duen bereizketa gogoratuz... eta, jakina, gertatu zena gertatu zen. Ikasgai bat atera dut; galdera teologiko horrek Radio Marian zuen bere leku naturala, ez handik at. Argi utzi nahi dut, hala ere, elkar ulertzeko borondate ona. Nola mesprezatuko du gotzain batek halako giza egoera dramatikoa?

**Dimisioak izan dira lantaldean. Hasi zara ekipo berria eratzen?**

Dimisioak direla eta, gauza pare bat argitu nahi nituzke. Zuzenbide kanonikoaren arabera, Aita Santuak apezpikuaren dimisioa onartzean, bikarioek une horretan bertan uzten diote bikario izateari. Ez da izan “plante” bat zenbait tokitan esan den bezala... Ekipo berria sortzeko, berriz, nik uste presarik gabe egin behar dela. Publikatu da kanpoko jendearekin osatuko dudala. Izenik ere aipatu da. Dena gezurra. Gotzaitegiko arduradunek, noski, elizbarrutia ongi ezagutu beharko dute.

**Hein batean, mingotsa izan zen Uriarteren agur elizkizuna. Gipuzkoako Elizbarrutiaren gainean egon diren “aurreiritziek” egin duten mina agerian utzi zuen. Nola baloratu dituzu zuk “aurreiritzi” horiek?**

Aurreiritzi horiek badaude eta eginahalak egin behar ditugu gainditzeko... Baina ez dugu ahaztu behar aurreiritziak alde guztietatik daudela. Esaterako, batzuek uste dute apaiz “sinatzaileak” militante politikoak direla edo metrailetakin dabiltzala... Zentzugabea da, dudarik gabe. Baina, aldi berean, hemendik egiten ari diren kritika batzuk, uste dute, Eliza, beste tokietan, ezberdina dela, eta bestelako helburuak dituela;

uste dute Elizak, beste tokietan, ez duela estimatzen laikoen promozioa edo emakumearen integrazioa. Aurrera segitzeko baztertu behar ditugu gisa guztietako aurreiritzi eta manikeismoak...

### **Uriarte eta Setien gotzainen bidea segitzera zatoz? Edo haustera?**

Aurreneko gauza da entzutea eta ezagutzea, eta gero gerokoak. Nik ez dut inolako instrukziorik jaso ... eta ez daukat aurretik erabakia zer pauso eman.

### **Izan dira auzi polemikoak. Jose Antonio Pagolaren "Jesus. Hurbilketa historikoa" liburuak, esaterako, hainbat teologo eta eliz agintariren gaitzespena jaso du. Zer impresio egin dizu Pagolaren liburuak?**

Ez dut liburuak irakurri. Teologo eta apezpikuen komentarioak irakurri ditut. Ez da izan nire eginkizuna kasu honetan liburu honen epai doktrinala egitea, senak eskatzen dit nire iritzi pertsonala auzi horretan ez sartzea.

### **Gipuzkoan apaiz egin zenituen urteetan, apaizgai gazteak, Elizbarrutitik urrundu, eta Toledora bideratu zenituela ere esan da. Egia al da?**

Pertsonak libreak dira. Nire kasua aipatuko dizuet. Ni inork ez ninduen bideratu Toledora formatzera. Nik modu librean erabaki nuen, nire formazioarentzako aberasgarri izango zelakoan. Ez dugu ezer arrarorik ikusi behar horretan.

### **"Mafia" izeneko dokumentu batean, kritikatzeko zenituen apaizen zerrenda zenuela ere esan da, eta haiei buruzko informazioa. Egia al da?**

Kargua hartu aurretik pentsatu nuen hobe zela ezer ere ez esatea gauza hauen gainean. Orain, argi utzi nahi nuke, hori dena gezurra dela. Interesarekin pertsonalki hitzegingo dut, ez dut uste kalumnia esan nahi izan zutenik... baina ikasi beharko genuke denok kotileo guztiak oso txarrak direla.

### **Laikoaren artean badira mugimenduak, Elizaren demokrazia eza salatzen dutenak. Zer iritzi duzu?**

Elizaren funtzionamenduak ez du segitzen metodo politiko demokratikoa. Horrek ez du esan nahi antidemokratikoa denik...Katolikook onartu behar dugu Elizaren izaera apostolikoa, hau da, Kristok apostoluei emandako autoritatea apezpikuei transmititu zaiela katea apostolikoaren bi dez... Hau garbi utziz gero, Elizaren eguneroko bizitzan modu aktiboagoan parte hartu nahi izatea oso positiboa dela uste dut.

### **Espainiako Gotzainen Konferentziako buruek, abortoaren legeari baiezkotzea eman dioten politikariak eskumikatu egin behar direla adierazi dute. Horren aldekoa zara zu ere?**

Haiek ez dute eskumikatzea aipatu. Eskumikatzeko kanonikoak bestelako ondorioak ditu. Orain, publikoki abortoaren aldeko jarrera hartzea ez da bateragarria Kristoren Gorputza hartzearekin.

### **Familia tradizionalaren defentsa egin eta abortoaren aurkako mezua zabaltzeko atera da kalera azkenaldian Espainiako Eliza. Horiek dira kezka nagusiak?**

Elizak kezka asko ditu; bi hauek handienetakoak dira. Bizitzeko eskubidea ukatzen bada, zer geratzen zaigu? Familia ez bada babesten zer espero genezake?

### **Baina famili eredu bakar bat babesten duzue zuek...**

Instituzio bat zaintzeko, lehendabizi definitu egin behar da. Dena familia bada, orduan ezer ere ez da...

**Tradizionala behar du, beraz, ezta?**

Ez nioke adjektiborik jarriko; familia da, berezko familia hori da.

**Dibortziaz beteta dago gure gizartea, sexu joera askatasunez bizi duten gizon-emakumez. Mingarri gerta dakizkieke, zuen hitzak...**

Bi jarrera egon daitezke hemen, hartu behar ez direnak. Bat izango litzateke, kristau morala, haserrean edo min emateko moduan predikatzea, eta bestea, izango litzateke pentsatzea lagun hurkoarekiko karitateak, isiltzea edo morala aldatzea eskatzen duela. Biak gaizki daude.

**Baina badira egoera larriak. Lehengo hilean, Granadako artzapeziku Javier Fernandez Martinezek, abortoarean harira, adierazi zuen, emakume batek abortatzen badu, gizon batek hari abusuak egiteko mugarik gabeko eskubidea duela...**

Nik ezagutzen dut, eta adierazi du bere hitzak manipulatu egin direla. Nola esango du bada, apezpiku batek horrelakorik?

**Bake bidean , zure ustez, zer lan egin dezake, Elizbarrutiak?**

Elizak egunero egiten du lana bakearen alde. Bizitzaren balorea defendatuz, barkamenaren eta umiltasunaren inportantzia bultzatuz, konbertsioaren beharra aldarrikatuz... Hori dena oso garrantzitsua da eta hori gabe nekez lortuko da bakea.

**Alderdi abertzaleek ez dute begi onez hartu zure izendapena...**

Esan nahi nieke nire izendapena ez daitekeela ikuspegi politikotik interpretatu. Garbi daukat denen aita izan behar dudala Kristoren artaldea zerbitzatu ahal izateko.